

KALE ERASOA. Inguruko beste zazpi autok kalte larriak izan dituzte

Andoaingo Udaltzaingoko buruari autoa erre diote

«Herrian indarrean dagoen estatu faxista» salatu du PSE-EEK



JAVIER ETXEZARRETA / EFE

Joseba Pagazaurtundua Andoaingo Udaltzaingoko buruaren autoa kixkalita.

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Joseba Pagazaurtundua Andoaingo (Gipuzkoa) Udaltzaingoko buruaren autoa erre zuten atzo. Ertzaintzaren arabera, eraso goizeko 05:20ean izan zen, Andoaingo Huici Doktore kalean. Erasoaren ondorioz, Andoaingo Udaltzaingoko buruaren Peugeot 309 autoa kiskalita geratu zen, bere ondoren zeuden beste hiru bezala. Halaber, beste lau autok ere kalte larriak izan zituzten.

Pagazaurtundua Andoaingo Udaltzaingoko burua izateaz

gain, bertako PSE-EEko batzordeko kidea ere da, eta pasa den martxoaren 11n bere etxeari molotov koktelez eraso zioten.

Alderdi politikoen salaketa gogorrak

Andoaingo eta Gipuzkoako PSE-EEK Joseba Pagazaurtundua aurkako eraso gogor salatu zuten atzo. Andoaingo Alderdi Sozialistak «bai herrian bai inguruan indarrean dagoen estatu faxista» salatu zuten, eta Ertzaintzari dei egin zion «egileak epailearen aurrean jartzeko».

Gipuzkoako PSE-EEK, aldiz, Andoaingo alkateari dei egin zion «eraso hau salatzeaz gain, delituaren nondik-norakoak ikertzeko ahalegina egiteko».

Eusko Alkartasunak eta PPK ere Andoaingo eraso salatu zuten. EAK azpimarratu zuen «eraso koakzio jasanezin bat» dela, eta Gipuzkoako PPKo lehendakari Maria San Gilek, aldiz, dei egin zuen «herritarrak fundamentalisten inposizioaren aurrean» altxatzeko.

Horrez gain, EAEko UGT sindikatuak herritarren segurtasuna bermatzea eskatu zuen.

GERRA ZIKINA. EAJren «inboluzio politikoa» kritikatu zuen atzo Batasunak

Aretxabaletako alkateari egin mehatxuaren aurrean EAJ eta EAren jarrera salatu dute

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Anjel Bergaretxe Aretxabaletako alkateak (Batasuna) jasotako mehatxuaren aurrean EAJ eta EAren «jarrera koldarra» salatu zuten Aretxabaletako alkateak, Batasuneko zinegotziek, eta Aitor Aranzabal Batasuneko es-

kualdeko arduradunak, prentsaurrekoan.

Bergaretxek bala bat zuen gutun bat jaso zuen abuztuaren 20ean. «Hurrengo ez duzu ikusiko... sentitu egingo duzu, zeuk eta zeure familiak», zioen GLA siglekin sinatutako gutunak. Batasunak «gerra zikinarekin»

lotu zuen mehatxua. Aretxabaletako Udalean egindako batzarrean EAJ eta EAK zinegotziak ez zirela agertu salatu zuten. Irailaren 8an egindako elkarretaratzean ere bi alderdi horietako udal ordezkariak ez zirela egon gogoratu zuten. «Horrek argi erakusten du EAJren inboluzio politikoa: bat egin du Estatuaren estrategia errepresiboarekin eta, batez ere, ezker abertzalearen kontrako estrategiarekin», adierazi zuten.

PPk eta PSOEk iritzi kontrajarriak azaldu dituzte Espainiako CGPJren osaketaren inguruan

PP eta PSOE alderdiek iritzi kontrajarriak azaldu zituzten atzo Botere Judizialeko Kontseilu Gorenaren (CGPJ) osaketaren inguruan. Horrela, Espainiako Legebiltzarrean PPKo bozeramaile Luis de Grandesek azpimarratu zuen CGPJren osaketaren inguruan «laster» akordio bat lortuko dela. Jesus Caldera PSOEko bozeramaileak, aldiz, aitortu zuen «akordioa itxi gabe» dagoela, eta Margarita Uria EAJko legebiltzarkidea defendatu zuen CGPJn ordezkartza izateko. Horren inguruan, Iñaki Anasagasti EAJko bozeramaileak atzo azpimarratu zuen Uriak CGPJn lekua ez izatea «basakeria politiko bat» dela.

«Terrorismoaren biktimetzat» lan eta etxebizitza plana eskatu du PPK

EAEko Alderdi Popularrak terrorismoaren biktimetzat lan eta etxebizitza plan bat eratzeko eskaera aurkeztu zuen atzo Gasteizko Legebiltzarrean. Horrez gain, Jesus Caldera Espainiako Parlamentuan PSOEko bozeramaileak Terrorismoaren Biktimen Legearen erreforma bat hitzartzeko deia egin zion atzo PPri.

«Mehatxuek bere erantzukizun politikoak beldurtuko» ez dituztela dio Rabanerak

Ramon Rabanera Arabako Ahaldu Nagusiak atzo esan zuen «mehatxuek eta atentatuek» ez dituztela «bere erantzukizun politikoak beldurtuko», eta «lanean jarraituko» duela. Araba komandari atzeman informazioaren artean Rabaneren inguruko datuak zeudela esan zuen Espainiako Barne Ministerioak.

Igandean Donostiako Urgull gazteluan intsumisioaren alde eginiko ekintza errebindikatu dute

Pasa den igandean Donostiako Urgull gazteluan intsumisioaren alde eginiko ekintza errabindikatu zuten atzo EGUNKARIARI igorritako idatzi baten bidez. Egundorretan 15 bat lagunek tinta gorritz betetako 40 bonbila jaurti zituzten Jesusen Bihotzaren monumentuari, eta *intsumisioa* zioen pankarta bat jarri zuten. Idatziak dioenez, «monumentu hori frankismoarekin zerikusia du, eta bide batez Euskal Herriaren zapalketarekin».

Euskal Herriatik 804 kilometrora dagoen espetxera eraman dute Kepa Arronategi

Kepa Arronategi Eako (Bizkaia) euskal preso Daro- cako espetxetik Jaenekora eraman dute, Euskal Herri- tik 804 kilometrora. Arro- nategi 1997ko urriaren 17an espetxeratu zuten, eta aurten espetxetik hiru bider aldatu dute jada: Alcazartik Alcala, Alcalatik Daroca- ra, eta handik Jaenera.

EAJk Donibane-Garazin etxegintza enpresari egin eraso salatu du

EAJ alderdiko Behe Nafarroa eta Zuberoako Herri Biltzarrak «iriotasun handienarekin salatu» du Donibane-Garazin astelehen goizaldean iragan zen ekintza. Molotov koktel batek Erlea etxegintza agentzia kaltetu zuen. EAJk «Hego Euskal Herrian erabiltzen diren metodoen inportatzea» deitoratu du.

Nafarroako arartekoaren web orria aurkeztu dute: 'www.defensora-navarra.com'

Maria Jesus Aranda Nafarroako arartekoak bere erakundearen web orria aurkeztu zuen atzo Iruñean. Helbidea *www.defensora-navarra.com* da, eta herriaren defendatzailea nafarren- gana hurbiltzea du helburu.



MANIFESTAZIO
NAZIONALA

DENON ARTEAN EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA!

Bilbon
Larunbata 15
Arratsaldeko 5etan
Aita Donosti enparantzatik

Euskal Herriko gizarte eta sektore desberdinen atxikimenduak jasotzeko
94 424 04 86 telefonora deitu